



ALEA

arabako aldizkaria

IRANTZU LEKUE

"LORE BERRIAK ARI DIRA SORTZEN ARTEAN"





SARRERA SALMENTA

Ekainaren 27tik aurrera

UZTAILAK 15-16-17-18-19-20 | FESTIVAL DE JAZZ

UZTAILAK 21 | EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA (EGO)

UZTAILAK 25-26-27-28 | LA FAMILIA ADDAMS

ABUZTUAK 4-5 | PERFECTOS DESCONOCIDOS

ABUZTUAK 8-9 | GOYO JIMÉNEZ...



ALEA 199

2019-06-28 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

E. ANDA

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Osoa mehatxatutako espezie izendatuko du Jaurlaritzak.
- 10 **Protagonista.** Irantzu Lekue, artista.
- 14 **Iritzia.** Irati Maraño, 'Zorion'.
- 16 **Sarean.** #NikSinistenDizut
- 17 **Iruditán.** Rockaren agertokia, sendo.
- 18 **Gizartea.** Pribatizazioaren kontrako plataforma sortu dute Txagorritxun.
- 19 **Gizartea.** Irtenbideak eskatu dituzte Santo Domingo kaleko auzokideek.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Kultura.** 25 urte bete ditu Pipaongo museo etnografikoak.
- 24 **Kultura.** Belaunaldi berrien uza.
- 25 **Kultura.** Maria de Mendoza, lehen lerrera.
- 26 **Sexologia.** 'Izpi indartsuak', Emaize.
- 27 **Gure bazterrak.** Aramaio.
- 28 **Denbora-pasa.**
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Irati Maraño, Emaize.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

'Lupus' abizena izateak dakarren madarikazioa

Otsoa mehatxatutako espezieen katalogoan sartuko du Jaurlearitzak, "interes bereziko" espezie gisa. Euskadiko Otso Taldeak urte askotan zehar eskatu du katalogazioa, baina horretarako epaitegietara jo behar izan dutela salatu dute. Babes gorena eskatu dute otsoarentzat. Testua: **Juanma Gallego**.

Otsoa Euskal Autonomia Erkidegoko espezie mehatxatuen katalogoan sartzeko asmoa du Jaurlearitzak. Hortxe lerrobura. Normalean lerroburu guztien atzean mami asko dagoen arren, kasu honetan bereziki istorio luzea dago atzean. Tartean daude epaitegiak, ekologistak, abeltzainak, bioaniztasunaren ardura duten zerbitzari publikoak edota Arartekoa ere. Istorio honetan falta den bakarra, momentuz, protagonista bera da: *Canis lupus*.

Gaur egun ez dago otsorik ez Araban ez gainerako Euskadiko Autonomia Erkidegoan, baina bakar batzuk izandakoak dira azken urteetan, eta Burgosko lurraldeetan badira. Ez da kasualitatea mehatxupear egotea: gizakiak aspalditik jazarpena egin dio espezie horri, baina harrigarriena da jazarpen hori oraindik mantentzen dela. Ekologistek salatu dutenez, erakunde publikoek bultzatuta.

"Beste edozein espezie baltiz, aspalditik egon beharko zukeen babestuta, baina otsoa beti izan da salbuespena", dio Euskadiko Otso Taldeko Andres Illanak. Gure artean orain otsorik egon ez izana administrazioei leporatu die. "Gaur Euskadin otsorik ez badago, bereziki Bizkaiko eta Arabako diputazioen errua da, ez dutelako onartu otsoa sartzea. Eta baita Jaurlearitzarena". Salatu du gainera Euskal Autonomia Erkidegoan otsoa ez onartzeak Iberiar penintsulako eta Europako populazioen arteko lotura saihestea dakarrela.

Gogor mintzatu da Illana administrazio publikoek otsoaren gaian duten arduratik. "Ezin daiteke bioaniztasuna berreskuratu

Otsoa beti "salbuespena" izan dela salatu dute ekologistek. UNSPLASH



ABELTZAINAK BEHARREAN, MENDIAN ARTZAINAK BEHAR DIRELA DIOTE EKOLOGISTEK

nahieran: molestutzen ez duten espezieak bai, baina otsoa ez. Duela 20-30 urte espezie hori ate-joka dugu, gure lurraldean sartu nahian, baina ez diegu utzi sartzen".

Hein handi batean, lehen sektoreko interesekin lotu du kontserbazio politiketan otsoa benetako anomalia bat izatea, baina azpimarratu du ingurumena ezin dela kudeatu sektore batzuen interesen arabera. "Oroitzen duela hamarkada batzuk Euskal Herriko ibaiak nola zeuden? Horiek garbitu behar zirela erabaki zen, eta zorionez ez genituen kudeatu ibaiak paper-fabriken interesen arabera. Itxi behar izan ziren eta kitto. Modu berean, ez dugu CO2 isuriaren arazoa kudeatuko Asturiasko ikatz-meatzarien interesen arabera". Abeltzainek haien interesak babestea zilegitzat jo du. "Haiek otsorik nahi ez dutela? Ederki, haien iritzia da. Izozki saltzaileek ere nahiko lukete negurik ez egotea". Abeltzainen interesen eta otsoaren presentzia ahalbidetzeko baliabideak badirela babestu du Illanak.

Bat dator taldeko kide Jorge Etxegarai. "Otsoaren presentzia ahalbidetzeko lehen metodoa artzaintza bera da. Orain abeltzainak ditugu, baina ez artzainak; hots, abereak zaintzen dituztenak. Bigarren tresna da abereak gauez biltzea, ez uztea mendian. Hirugarrena, ondo zaindutako eta trebatutako txakurrak erabiltzea".

Kudeaketa egokia

Beste lekuetan izandako esperientziak gogora ekarri dituzte. "Pirinioetan hartzen erasoak saihesteko artaldeak bildu eta artzainak kontratatu dituzte. Hartzak edo otsoak akabatu beharrean, abeltzaintza egiteko modua aldatu dute", azaldu du Etxegaraik. "Alemanian 2000. urtearen bueltan ez zegoen otsorik, eta orain 100 bat talde egongo dira. Babestu dituzte eta kudeaketa egokia egin dute".

Gure artean, berriz, izandako kudeaketa bakarra otsoak akabatzeke uxaldiena izan dela kritikatu dute ekologistek. "Hemen otsoaren gaian egin den inbertsio bakarra 200.000 euro ingurukoa izan zen. Arabako diputazioak eman zuen. Artzainak kontratatzeke? Ez.

ALEGRIA – DULANTZI

2019ko UDA



UDAL IGERILEKUAK

Ekainaren 1etik irailaren 11ra irekita

ANIMAZIOA

Uda Joku || Korterraza || Gazte Programa
|| Kontzertuak || Henaiko Kastrora bisita gidatuak...





Otsoen uxaldiak erabili dira sarritan espeziea kudeatzeko. ASCEL ELKARTEA

Ehiztarien elkarte bati eman zioten dirutza hori, otsoak akabatu zitzaizkion", gogoratu du Illanak. Bestetik, lehen sektoreak jasotzen dituen laguntzen barruan teoriarik jasangarritasun konpromisoak betetzea dakartzala azpimarratu du Etxegaraik. "Askotan lehen sektorearen ikuspegi bukolikoa mantentzen da, baina sektoreak diru-laguntza handiak eskuratzen ditu: Europako Batasunaren aurrekontuaren %40 eramaten du, NPB Nekazaritza Politika Bateratuaren bitartez. Diru-laguntza horiek publikoak dira, eta hori ikus daiteke abeltzain bakoitzak jasotzen dituen kopuruak. Eta askotan egiaztatu ahal izan dugu kalteak direla eta kexatzen diren abeltzain batzuk dirutza handia jasotzen ari direla".

Erasoren bat salatzeak ere, izandako kalteak ordaintzen zaizkie abeltzainei, baina horren atzean ere mami asko dagoela salatu dute ekologistek. "Iberiar penintsula osoan gehien ordaintzen da Araban". Euskal Autonomia Erkidegoan eraso horien azterketa teknikoa enpresa pribatu batek egiten duela azaldu dute ekologistek, eta perituen ondorioak "deigarritzat" jo dituzte. "Euskadin egiten ziren azterketetan, ia beti argitzen zen norenak ziren erasoak, eta beti leporatzen zioten otsoari. Gaztela eta Leonen egindako azterketen %20-25, adibidez, ezezagunei edo zehaztu gabeko kanidoei leporatzen diete", argitu du Illanak. "Arazoa da azterketa horietan oinarrituta abiatzen zirela otsoa akabatzeke uxaldiak".

Eraso horiek ardura beti otsoei leporatzen bazaie ere, datuek bestelako egoera marrazten dute. Hala jaso zuen Etxegaraik 2003an eta 2004an egindako ikerketa batean. Bi urte horietan Araban 154 eraso salatu ziren, eta, horietatik, %95 otsoei leporatu zieten.



Andres Illana eta Jorge Etxegarai oso gogor mintzatu dira administrazioek erakutsi duten jarreraz. ALEA

Ondorioz, otsoak akabatzeke 27 uxaldi antolatuta ziren. Egoera benetan horrelakoa zen ikusteko, ustez otsoarenak ziren 150 inguru gorotz bildu zituzten Araba eta Burgosen arteko mugetan, eta horiei azterketa genetikoak egin zieten. Emaizak 2010ean argitaratu zituen zientzia-artikulu batean, *Animal Conservation* aldizkarian. "Laginetatik, heren bat baino ez ziren otsoarenak", azaldu du adituak. Baina genetikak ere aukera ematen du jakiteko zer zen animalia horiek jaten ari zirena, eta hemen ondorioa ere esanguratsua izan zen. "Ikusi genuen otsoek eta txakurrek berdina kontsumitzen zutela, baina proportzio desberdinean. Otsoek lehentasunez basapiztiak kontsumitzen dituzte. Otsoetan ia ardien kontsumorik ez zegoela ikusi genuen, baina txakurretan ardien kopurua bost aldiz handiagoa zen".

Nola da posible hau azaltzea? Etxegaraik argi dauka: "Kalteak txakurrenak badira, ez dira ordaintzen. Kudeaketaren ikuspuntutik, horrek esan nahi du modu subjektiboan otsoak kriminalizatzen ari direla".

Harrapakari nagusi bezala otsoak ekosistemetan betetzen duen rola nabarmendu dute ekologistek. "Basa ungulatuen populazioen erregulatzailer nagusia da, eta hoberena gainera. Gizakiak askotan erakutsi du ez dakiela hori kudeatzen.

Ikustea besterik ez dago zer gertatu den basurdeekin, ehiza jardun desegoki baten ondorioz", argudiatu du Illanak. Hortaz, harrapakari horri bere lana egiten uzteko eskatu dute.

Egoera horretan, ez litzateke arriskutsua izango gizakiarentzat? "Ez, ez dago eraso hilgarrien daturik", argitu du Etxegaraik. "Gainera, ez dago horiek kontrolatzeko beharrik. Beste edozein harrapakari handiek bezala, otsoek beraiek mugatzen dituzte haien populazioak, ekosistemen produktibitatearen arabera. Ezin dira izurrite bihurtu".

Orain Jaurlearitzak Euskadiko Espezie Mehatxatuen katalogoan otsoa sartzeko eskaera aintzat hartzea lortu dutela azaldu dute ekologistek, baina "interes bereziko espezie" gisa. Ekologistek mehatxupeko espezieetat izendatzeko eskatu dute. Katalogazioa lortzeko bide administratiboa eta penala jarraitu behar izan dute. "Lotsagarria da elkarte batek dirua eta denbora gastatu behar izatea legeak dioena bete dadin", kexu mintzo dira. "Jaurlearitzak ofizio katalogatu beharko zukeen otsoa, baina ez dute egin auzitegiatar jo dugun arte". 2012tik, hiru aldiz egin zuten eskaera, erantzunik gabe. Arartekoarengana jo zuten orduan, eta arrazoia eman zien. Bestetik, administrazioarekiko auzien prozesua abiatu dute. "Orduan mugitu da Jaurlearitza", azaldu du Illanak. "Beldur ziren epai batek ebatziko ote zuen otsoa katalogoan sartu behar zela, gorenako babes mailarekin". Gauzak horrela, afera legegai zirriborro gisa dago orain, baina UAGA Arabako Nekazarien Elkarteak aurreratu du erabaki horren kontra daudela. Espeziea babesteko borrorak oraindik luze joko duela ematen du. ■■■

"Otsoa babesten badugu, izurrite bihurtuko da"

JAVIER TORRE UAGA-KO PRESIDENTEA

Otsoa babesteko Jaurilaritzak iragarritako neurriarekin ez dago ados UAGA Arabako Nekazarien Elkarteak. Otsoa arriskuan ez dagoela uste dute.

Otsoa babesteko neurrien kontra azaldu zarete. Zergatik?

Gure ustez, otsoa Araban sartzen uzteko erabakia bizimodu bat eta lanbide baten aurkako eraso da: abeltzaintza estentsiboarena, hain zuzen. Hemen otsorik ez dagoela diote, baina egon badaude. Eta haien kopurua asko igotzen ari da Estatu mailan. Desagertzeko arriskuan balego gu babesteko neurriak hartzearen alde egongo ginake, baina orain ez gaude egoera horretan. Gero eta otso gehiago daude, eta hedatzen ari dira, gainera. Otsoa babestu duten eremuetan demografia-eranda gertatzen ari da. Babesten badugu, izurrite bihurtuko da, eta izurriteak txarrak dira.

Zer nolako irtenbidea ikusten duzue otsoa eta abeltzaintza bateragarriak izateko?

Hori oso konplikatu da, are gehiago Euskadi bezalako lurralde batean. Beste hainbat eremutan baso handiak eta lurralde zabalak daude, baina ez da gure kasua: mendi txikiak dira, herri asko dituztenak... Hemen inoiz ez dira egon otso talde handiak, baina Burgostik sarrera batzuko



ALEA

izan dira, eta oraindik izaten dira. Momentuz ez dago eraso askorik, baina otsoa hemen sartzearen aldeko neurriak hartzen badira arazoak egongo dira. Erasoak izatekotan, abeltzainek mendiko abereak hartu eta etxera eramango dituzte. Gauzak horrela badira, nork zainduko ditu mendi horiek? Arazoak egongo dira mendian; adibidez, suteekin. Eta hemen mendiak txukun mantendu badira, hori abeltzaintza estentsiboari esker izan da.

"ERASOAK GERTATZEN BADIRA, ABELTZAINEN MENDIA UTZIKO DUTE, BABESIK GABE UTZITA "

Egoera hori kalte-ordainekin konpontzerik ez dago?

Oso polita da kalte-ordainek buruz hitz egitea, baina ikusten ari gara erasoak askotan ez direla salatzen. Gainera, normalean hildako abereei buruz hitz egiten da, baina beste arazo asko ere badira: zauritutako abereak, agerian azaldu ez baina barne mailako zauriak dituztenak, estresa... Bestalde, inoiz ez ds egon benetan kalte-ordainak emateko politikarik.

Abeltzainak ez dira mehatxuak salatzen ari, ematen zaiena ez delako nahikoa, eta arazoak besterik ez dizkielako ekartzen: ikuskaritzak, hedabideak edota talde animalisten presioa.

Ekologistek diote askotan txakurren erasoak direla, eta ez otsoarenak...

Arazo desberdinak dira. Badira bai txakur basatiak, gose direnak eta normalean ardiei erasotzen dietenak. Otsoek, berriz, behiak, zaldiak eta zaldikoak hiltzen dituzte. Askatutako txakur horiek kontrolpean eduki behar dira. Txakurrei dagokienez, askotan proposatu dute mastinak erabiltzea, baina ekologistek ez dakite zertaz ari diren. Mastin asko eduki beharko lirateke mendian, eta horiek ere arazo bihur daitezke. Mendira joaten den jende asko dago hemen, eta mastinak sartzen baditugu arazo bat sortzeko arriskua dago, arazorik ez dagoen une batean. Gainera, horiek baldintza egokietan eduki behar dira, ondo trebatuta eta ondo elikatuta, eta hori ere gure gain geratzen den gastu handia da. ■■■

"Gasteizen obra sozialagoak egiteko beharra izan nuen"

IRANTZU LEKUE ARTISTA

Artelanak sortu eta beste hainbat artistek sortzen dutena ezagutzera emateko lanean dabil Irantzu Lekue. Haren kezkak argazki, bideo edota horma-irudietan islatu, eta, era berean, Artgia sorgunetik kulturagintzan eragiten jarraitu nahi du, adin, ibilbide eta diziplina desberdinetako artistek inguratuta.

Testua: **M. Ugarte/ A. Amenabar.** Argazkiak: **E. Anda.**

Arte garaikidearen sorkuntzarako eta erakusketarako gunea izateko helburuarekin jarri zuten abian Artgia, Gasteizko Judimendi auzoan. Bi urte igaro dira ordutik, eta ospakizunetan izan dira egun hauetan, musika, antzerkia eta erakusketa tarteetan. Sorgunearekin batera, eskutik helduta, ibilbide oparoa osatzen dabil aretoko zuzendari Irantzu Lekue (Gasteiz, 1987); ez soilik Artgia gunean, beste hainbat txokotara heldu baitira haren bideo lan eta horma-irudi koloretsuak. Lan zurrumbilo horretan tarteak egin du Alea FM saioan egoteko.

Bi urte joan dira Artgia martxan jarri zenuenetik.

Espero zenuen ibilbidea izan du?

Egia esan, hasiera hartan ez nekien nolakoa izango zen egingo zuen ibilbidea, baina bai, oso pozik gaude egindakoaz eta lan egiteko gogo handiagoarekin gainera. Bi urte hauetan aukera izan dugu artista interesgarrien lana ezagutzeko; 25 erakusketa inguru izan ditugu, eta mikroantzerkiak, liburu aurkezpenak eta jaialdiak egin ditugu, besteak beste. Askotariko lanak ezagutzeko aukera izan dugu.

Hainbat urtez atzerrian ikasten izan eta gero, Gasteizera bueltatu zinen. Etxera bueltatu eta Artgia jarri zenuen martxan.

Bueltatu nintzenean egoera oso txarra zen kultur arloan, eta pauso bat ematea erabaki genuen. Lonja bat konpondu eta urtebete beranduago hasi ginen lanean.

Zein da Artgiaren erakusketen muina?

Aniztasuna asko baloratzen dugu, eta diziplinak nolabait nahastea. Emakumearen gaia lantzen dutenak dira nagusi, euskara ere garrantzitsua da, eta gaztetasuna ere kontuan izaten dugu, espazioak behar dituztelako erakusketak egiteko eta beraien lanak garatzeko.

Eta bisitaririk izaten al da?

Bai, eta oso kurioa da askotariko publikoa pasatzen delako bertatik, normalean oso lotuta daukagun erakusketarekin. Gustatuko litzaziguke behin etortzen diren bisitari hauek aretoa ezagutu eta hurrengo erakusketetara ere etortzea eta beste lan batzuk deskubritzea. Dinamikoa izatea nahi dugu, eta gauza desberdinak ikusteko aukera izatea.

Artgiarekin batera, azkenaldian beste gune eta galeria batzuk ari dira loratzen Gasteizen.



Bi urte bete ditu Artgia sorguneak, Irantzu Lekue buru duen Judimendiko espazioak.

**"ARTE PLASTIKOEN ALORRA ESKASA
IZAN DA GASTEIZEN, BAINA LORE
BATZUK JAIOTZEN ARI DIRA"**

**"EMAKUMEEN LANAK IKUSARAZTEA
DA ARTGIA ARETOAREN
BALDINTZETAKO BAT"**

**"BI URTE HAUETAN ASKOTARIKO
LANAK ETA ESTILOAK IKUSTEKO
AUKERA IZAN DUGU ARTGIAN"**

Urte batzuetan oso eskasa izan da kultura eskaintza Gasteizen, arte plastikoen arloan batik bat, baina ari dira lore batzuk jaiotzen, eta uste dut positiboa dela arlo pribatutik ere mugimendua egotea.

Artistentzako beka bat ere baduzue martxan.

Bai, laguntza horri esker euren lana aurkeztuko dute bekadunek, eta sari bezala 400 euro, zabalkunde lana eta saltzeko aukera ere izango dute. Pozik gaude harrera ona izan duelako; jende nahikotxo aurkeztu da, eta oso proiektu desberdinekin gainera.

Sortzaile lana eta erakusketa aretoaren koordinatzaile lana bateragarriak al dira?

Batzuetan zoratzekoa da kar kar, baina laguntza daukat. Talde lana da gurea, azken batean.

Kritika soziala gakoa da zure lanean?

Nire obraren ibilbidea aztertuta, pauso bat ikusi dut. Lehen nortasunari buruzko artelanak sortzen nituen, eta Gasteizera heltzerakoan zeozer sozialagoa egiteko beharra sentitu nuen. Eta horretan ari gara. Lehenengo ekimena Kreako obra izan zen; mandala bat margotu nuen han, eta oihartzun handia izan zuen, gaia mahai gainean jartzeko aukera eman zuen.

Kulturalki Gasteiz "basamortua" zela salatu zenuen orduan...

Bai, eta Krea eraikinak 11 urte zeramatzala itxita. Zertarako dago hor? Salaketa hori mahai gainean jarri nahi genuen. Horren ostean izan zen #6.000zpt lana; momentu hartan Maroto zegoen alkate modura, eta bere politika arrazistak salatzeke obra zen. Hilabete egon ginen leku desberdinetatik zapatak jasotzen gero instalazio erraldoi bat osatzeko.

Generoa ere bada zure arduretako bat, ezta? Sortzaile eta aretoko koordinatzaile moduan.

Uste dut beti sortzen dudala emakumearen ikuspuntutik, eta nire lanetan agerikoa da. Baita hasierako lanetan ere; tratu txarrei buruzko artelanak edo hausnarketak egin nituen, besteak beste. Emakumeok gure lanak ikusarazteko izan ditugun oztopoak ere oso gertukoa dugu, eta aretoa ireki genuenean horren kontra zeozer egin behar genuela pentsatu genuen; horregatik emakumeen lanak ikusaraztea da aretoaren baldintzetako bat. Nire lanetan ere ateratzen da, ezinezkoa delako beste modu batera.

Parte-hartzea ere bada zure sorkuntza prozesuetan ezaugarria, ezta?

Artgiaren barruan ere bada beste kezka bat; hain justu, eraldaketa sozialari buruz zeozer egin



Artgia sorguneko erakusketak eta Confecciones Pinedoko horma-irudi berria ditu esku artean Irantzu Lekuek.

behar dugula. Alde batetik, kanpoko zeozer konpondu edo koloreztatu dezakegu, eta, beste alde batetik, jendearekin parte hartu eta obra horren parte izatera ere gonbidatu dezakegu; uste dut artearen praktikarekin pertsonak beste era batean sentitzen direla, eta taldean lan egitean ere sentsazio desberdinak izaten direla. Terapeutikoa ere bada, arteterapia moduko bat. **Halako proiektuetan hasieratik parte hartzen dute? Nolakoa izaten da prozesua?**

Ideien parte-hartze saio batzuk egiten ditugu, eta hor ikusten dugu zeri buruz hitz egin nahi den eta zer nolako ideia nagusiak ateratzen diren. Beti ideia ugari izaten dira, eta gero banatu behar ditugu. Bigarren saio batean irudiak jartzen dizkiegu ideia horiei, eta horrela has naiteke diseinuekin edo proiektuaren ideia osatzen.

Azkenaldian Bizkaia aldean aritu zarete, ezta?

Bai, nahikotxo. Zallan, Derion, Ubiden... Oraintxe, berriz, Gasteizko Confecciones Pinedon nago, sarrera eta garajea margotzen, eta hori da esku artean dudana. Irailerako ere beste proiektu batzuk ditugu...

Polemikoa izan zen Gasteiz Etorbidean egin behar zenuen horma-irudia. Hainbat presiogatik, uko egin zenion. Nolako balorazioa egiten duzu orain?

Momentu zaila izan zen niretzako eta nire inguruan daudenentzako, baina uste dut hiltzen ez zaituenak indartsuago egiten zaituela. Pena ematen dit, maiz igarotzen naizelako bertatik, eta uste dut kristoren aukera zela ibilbide hori ere aldatzeko eta kolorea emateko Gasteiz Etorbideko inguru horri... Azkenean San Martinen egitea lortu genuen, eta sekulako partaidetza egon zen gainera; 500 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten, eta uste dut oso ongi egon zela.

Gasteiz Etorbideko horma-irudiaren eztabaida horrek balio izan du mahaian eseri eta irizpide batzuk jartzeko?

Hortxe ari gara. Lehiaketaren barruan baldintza gehiago jarri dituzte. Eta hirigintza sailarekin ere aztertu behar dituzte zein horma margotu daitekeen eta zein ez... Nik hau ez dut oso ondo ulertzen; ez dakit zergatik alboko hormak bakarrik margotu behar ditugun, fatxadak betidanik margotu direnean... Halere, beraiek ere beren iritzia ematea ere ongi dagoela uste dut.

Margolari eta arkitektuen arteko talka dago?

Uste dut ikuspegi kontua dela, eta baita botere kontua ere. ■■■

Zorion



IRATI MARAÑÓN

ITZULTZAILEA

Eskandinaviako herrialdeak dira ongizatearen eredu Mendebaldeko (edo are Iparraldeko) gizartean. Hala, sare sozialei erreparatuz gero, emakumezko japoniar batek etxea nola ordenatu esaten digu, eta eskandinaviarrek (izan daniar, suediar ala islandiar) zoriontsu izateko aholkuak ematen dizkigute. Bizitzaren gauza txikietan aurkitzen omen dute haiek zoriontasuna, etxeko epeltasunean, eta kontzeptu horri *hygge* esaten diote Danimarkan, eta *lagom* Suedian. Are gehiago, Islandian hitz bat daukate egun hotz eta euritsuetan etxeko leihotik kanpora begira egotearen "arte" izendatzeko: *gluggaveður*, alegia. Eredu horrek, baina, badu bere ifrentzua. Erraza da, bai, etxetik atera gabe zoriontsua izatea irakurtzen, infusioak eta pastelak jaten, lagunekin elkartu eta filmak ikusten, eskulanak egiten... baldin eta etxe atsegina eta duina baduzu eta neguan berokuntza ordaintzeko nahikoa diru. Bestela, nekez aurkituko duzu zoriontasuna etxearen uestezko goxotasunean. Mundu pribilegiaturen prismatic eraikita dago eredu hori, sare sozialetan izurritearen antzera zabaltzen diren eredu gehienak bezalaxe. Filosofia horrek, gainera, ez al du indibidualismoa bultzatzen? Izan ere, nekez aldatuko da ezer nor bere etxean gotortuta geratuz gero, herritarren arteko interakziorik gabe eta gizartean sinergiak sortzeko aukerei bizkarra emanez. Argi dago kale egin digutela gauza/pertsona askok eta gero eta kausa gutxiagotan sinisten dugula, baina sinistu nahi dut badela zerbait norberaren baitan biltzetik harago.

Hygge da kafe ona hartzea, ogi egin berriaren usaina, beheko suari begira egotea, artilezko jertse baten goxotasuna... Hedonismo-keinu txikiak, azken finean. Gutxi izango dira nik bezainbeste disfrutatzen dutenak eskandinaviarrek aldarrikatzen dituzten gauza "txiki" horiekin, oso zoriontsu egiten naute-eta, baina zoriontasun bete-betea erdiesteko (halakorik balego) ez dira aski, eta, hain zuzen ere, beste horiek bilatzean datza bizitza. ■■■

**NEKEZ ALDATUKO DA
EZER NOR BERE
ETXEAN GOTORTUTA
GERATUZ GERO,
INTERAKZIORIK GABE...**

MUGAK GAINDITZERA GOAZ

ZUIA EUSKARAZ 2019

GURE HERRIAREN MUGAK,
EUSKARARENAK,
GURE BAITAN DAUDE GEHIENAK,
EUSKARA ZABALDUAZ LAU HAIZEETARA
ZABALAGO EGITEN GARA.

MUGA(k):

Hainbat muga ditugu euskaldunok egunerokotasunean. Lotzen gaituzten mugak, banatzen gaituztenak, itotzen gaituztenak, Zer da iparra eta zer hegoa?



**Ekainak 29, larunbata
EGUN OSOKO FESTA**

**Jantzi Zuiia Euskarazeko zapia, eta
zatoz, ederto pasako dugu!**



ZUIA EUSKARAZ EGUNA

11:00etan gaztetxean

HAMAIKETAKOA

12:00etan, gaztetxetik plazara

KALEJIRA parte-hartzalea

13:00ean udaletxe plazan

**IKUSKIZUNA, Zuiako kultur taldeen
eskutik**

15:00etan, piszinetan

**HERRI BAZKARIA. Ekarri zure
jatekoa, aukiak, mahala... eta
elkarrekin bazkalduko dugu!**

Bazkalostean

**IRRINTZI LEHIAKETA eta erromeria,
WATSON et NATEkin**

..eta 20:30ean

denok Lukianora, DANTZA-PLAZARA!

SAREAN

@ANAMENABAR

#NikSinistenDizut

Sanferminetako taldeko bortxaketa gertatu eta hiru urtera hartu du erabakia Espainiako Auzitegi Gorenak, aho batez: sexu erasoa izan zen. Nafarroako epaitegien epaia zuzendu eta abusu soila izan ez zela ebatzi du, herritarrek kalean hasieratik eskatzen zutenarekin bat. 15 eta 17 urte arteko espetxe zigorra bete beharko dute bost erasotzaileek. ■



**OIHANA
BARTRA**
@OihanaBartra

Guk bagenekien, baina pozgarria da "justiziak" ere aitorten hori egitea. BORTXAKETA izan zen! Besteak beste, kalean egindako burrukaren emaitza. #NikSinistenDizut



AMAIA URIBE
@amaia_uribe

15 ez da asko, baina 0 baino gehiago da. Bost basapizti baten kontra, bortxaketa baino gehiago da. Eta herri oso bat, manada baino gehiago da #YoSiTeCreo



MARTXOAK 8
@M8_egunero_
da

Epaia entzun eta gero, biktimari besarkada handia beti irmo mantentzeagatik: beragatik, eta gu guztiengatik. #Feminismoa da bide bakarra. Aurrera!!!



**KATTALIN
MINER**
@MKattalin

Izan zena izan zen. Guk hori ondo baino hobeto genekien, orain, dirudienez, justizia ere ohartu omen da. Ez ahaztu kalean egindako lan guztia, eta beste hainbat kasutan ematen den justizia eza.



ANA MORALES
@AnaisNi

Asko kostatzen zait pizti saldoaz idatzi ere egitea. Beraz, beste barik topa egin nahi dut 2016ko sanferminetatik hona infernuaren erdian zutundu den emakume baliante horren alde. Gora borroka feminista!

	BAKARRIZKETAK	EKOIZPENAK	
	ANTZEZLANAK	MANAGEMENT	
	FAMILIARRAK	 www.ttipia.eus	



Rockaren agertokia, sendo

Rockzale eta antolatzaileak gustura geratu dira aurtengo Azkena Rock jaialdiarekin. Hemezortzigarren edizioak pozik utzi ditu zaleak, besteak beste, Stray Cats, Wilco eta The Cult taldeen kontzertu gogoangarriekin, eta iazko marka haustea ere ospatu dute antolatzaileek; 2018an baino musikazale gehiago bildu dira, 36.000 denera. Aurtengo agertokiak jasota, datorren urterako egitaraua ere aurreratu dute; ekainaren 19an eta 20an egingo da 2020an, eta parte hartuko duten taldeen lehen bi izenak eman dituzte: Social Distortion eta Fu Manchu.

Argazkia: Erlantz Anda.



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Maiatzean mantenimenduko langileek kontzentrazioa egin zuten. LAB

Pribatizatze- tentaldiak

Plataforma bat sortu dute zerbitzuetako eta mantenimenduko Osakidetza langileek Txagorritxuko eraikin berrian sortuko diren lanpostuak publikoak izan daitezen. Elkarretaratzeak egin dituzte jada.

ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Txagorritxuko eraikin berrian lanpostuak publikoak izan daitezzen "konpromiso argia" exijitu diote mantenimenduko eta zerbitzuetako –garbiketa, sukaldea, garbategia– behaginek Arabako Osasun saileko zuzendaritzari. Izan ere, kezkatuta daude sortuko diren behar berriak asetzeko, pribatizatze urratsak ez ote diren egiten ari, eta "ziurgabetasuna" salatu dute.

Osakidetza zerbitzuetako eta mantenimenduko langileek plataforma bat eratu dute Txagorritxuko eraikin berrian sortuko diren haien esparruetako lanpos-

tuak publikoak izan daitezen eskatzeko.

Izan ere, zerbitzuetako langileen kasuan, Arabako osasun saileko zuzendaritzak ez du argitu oraindik nola kudeatuko duen zerbitzua, eta, azaldu dutenez, arduradunekin izan dituzten hartu-emanetan ez dute konpromisorik hartu nahi izan kontratazio publikoaren in-

TXAGORRITXUKO ERAIKIN BERRIA NOLA KUDEATUKO DEN EZ DU ARGITU OSAKIDETZAK

guruan. Txagorritxuko Langile Batzordeko kide eta LAB sindikatuko eledun Raul Castillok esan duenez, egun ospitalean eredu mistoa dago, alegia langile batzuk Osakidetza dira eta beste batzuk kontrata bidez aritzen dira bertan: "Zerbitzuetako langileak beldur dira eraikin berrian sortuko diren plazak azpikontraten bitartez esleituko dituzten".

Mantenimenduaren inguruan berri, eraikin berriaren hornikuntza esleitzeko argitaratu diren baldintza –agiritan Osakidetza jaso du enpresa– hornitzaileak beraiek arduratuko direla mantentze-lanez, eta horrek langileen haserrea eta kezka eragin ditu. "Pribatizazioa da hori, mantenimenduko zerbitzuaren ezkutuko pribatizazioa", esan du Castillok. Arabako zuzendaritzarekin hainbat bilera egin ostean, lortu dute pleguak aldatzea, eta zain daude orain ea hurrengo baldintzetan mantenimenduko langileen lanpostuak bermatzeko konpromisoa jasotzen duten.

Azken hamabost urteetan pribatizatu diren lanpostuak berreskuratzeko exijitzen dute ere Osakidetza mantenimenduko langileek.

Mobilizazioak

Maiatzean lehenengo protesta egin zuten mantenimenduko langileek, eta ostegun honetan, zerbitzuetako langideekin batera, bigarren kontzentrazio bat egin dute Txagorritxuko kanpo-kontsultetan, *Pribatizaziorik ez* lelopean. Ospitaleko Pertsonalbatzarrak eta Enpresa Batzordeak bat egin dute elkarretaratzearekin.

Txagorritxuko eraikin berria hurrengo urtean zabaltzeko asmoa du Osakidetza, eta bertara mugituko dituzte egun sakabanaturik dauden hainbat zerbitzu.

E.UGARTE LZ.DE ARKAUTE GASTEIZ

Soluzioak nahi dituzte Santo Domingo kaleko bizilagunek, lege-gintzaldi berrian ahal dela. 2017ko urrian, haien etxeetatik aterarazi zituztenetik, ez dute irtenbiderik aurkitu, nahiz eta Gasteizko Udalak esandako guztiak hitzez hitz bete eta sobera ez dituzten sosak gastatu.

Agerraldia egin dute aste honetan kaltetuek, udalbatzari gogoratzeko arazoak bere horretan dirauela. Gainera, nabarmendu dutenez, Santo Domingoko etxebizitzaren arazoaren moduko gehiagorik azaleratzea espero daiteke hurrengo hilabeteetan, behin Eraikinen Ikuskaritza Teknikoak Alde Zaharreko beste kale batzuetan egiten hasten direnean. "Udal gobernuari eskatzen diogu irtenbideak bilatzeko kasu bakoitzean dauden baldintza bereziak kontuan hartuz".

Santo Domingo kaleko 40 eta 42 atarietako lagunak prest agertu dira Hirigintza saileko zinegotzi berri Ana Oregirekin biltzeko eta haien arazoen berri emateko. "Erortzeko arriskutik salbatzeko, Alde Zaharrak jarduketa plan bat behar du".

Ia bi urte

Bide burokratiko luzea egin dute Santo Domingoko bizilagunek inora ez iristeko. Agerraldian azaldu dutenez, iragan urteko azaroan Itziar Gonzalo orduko Hirigintza zinegotziarekin bildu ziren, eta horretan jakin zuten ordura arte



Agerraldi publikoa egin dute aste honetan Santo Domingoko kaltetuek. DOSPORDOS

Bide luzea inora ez iristeko

Duela ia bi urte aterarazi zituzten Santo Domingo kaleko 40 eta 42 atarietako bizilagunak, eraikina erortzeko zorian zegoelako. Udal gobernu berriari irtenbideak bilatzen laguntzeko eskatu diote.

egindako tramiteak eta bide osoak ez zuela ezertarako balio izan. Izan ere, 2018ko hasieran, Udalak etxebizitzak birgaitzeko derrigorrezko exekuzioa egingo zuela agindu zien—administrazioa obraren kargu egingo zen, eta ondoren bizilagunekin negoziatuko zuen ordainketa—, baina Gonzalok ukatu zuen aukera hori mahai gainean zegoenik, eta Ensanche

21 agentziara bidali zituen. Bertan azaldu zieten laguntzak izateko eskubiderik ez zutela. "Udalak hasieratik zekien bizilagunek ez genuela gaitasun ekonomiko nahikorik obrari aurre egiteko", argitu dute bizilagunek; eta salatu dute etxera itzultzeko "ahalegin izugarri handia" egin badute ere, epe laburrera ez dutela aterabiderik ikusten.

ESANAK



MARTA BENGOTXEA
GASTEIZ ON ELKARTEA

"Denda batera sartzea sakelakoa erabiltzea baino erakargarriagoa izatea lortu behar dugu"



YOLANDA URARTE ALONSO
TREBIÑUKO ZINEGOTZIA

"Politikariak ez badira kapaz gai txiki hau konpontzeko, pentsa gai handiak"



RAMON IBEAS
GASTEIZKO CARITAS ELKARTEA

"Hasiak gara diru falta kontrolatzen, baina pobrezia ekonomiatik baino harago doa"

ZENBAKITAN

Mineralak

Arabako Natura Zientzien Museoak pieza gehiago izango ditu hemendik aurrera, dohaintza baten bitartez mineral bilduma bat eta hari buruzko argazkiak jaso berri dituelako. Jose Manuel Sanchis valentziar zaletuak helarazitako bildumak mundu osoko aleak ditu. 1964an hasi zen Sanchis bilduma osatzen, eta gaur egunera arte aritu da horretan. Jadaniak desagertuak diren Espainiako zenbait meatoki historikotako piezak ere badira bilduman. Horiekin batera, meatoki eta mineralei buruzko argazki artxibo garrantzitsua eman du Sanchisek, 80.000 argazki inguruz osatutakoa.

2.600

150

Hektareak

Pinudietako banda marroia prebenitzeko Amurrioko Udalak baso publikoko 80 hektarearen tratamendua egingo duela iragarri du. 15 urtetik beherako pinudietan egingo dute tratamendua, oxido kuprosoa erabilita. "Gaixotasuna prebenitzea eta oraindik osasuntsu dauden pinudietara zabaltzea saihestea" bilatzen duela esan du Udalak. Horrez gain, jabetza pribatuko beste 70 hektarea inguru fumigatuko dituela iragarri du.

35

Tonak

Arabako Elikagaien Bankuak 34.944 kilo elikagai banatuko ditu uztailen, horien beharra duten arabarren artean. Orotara, 1.779 lagunek jasoko dute laguntza; horietatik, 392 bularreko haurrak izango dira. Bereziki Europako Batasuneko funtsen bidez finantzatzen den laguntza horrek hiru fase izango ditu: uztailako lehen banaketa hau, bigarren bat urrian eta hirugarren bat datorren urteko urtarrilean. Galkorrak ez diren 14 produktuk osatzen dute saskia.

BVEk duela 40 urte hil zuen Enrique Gomez Alvarez gogoratu dute

Egiari Zor fundazioak omenaldia egin dio Enrique Gomez Kortari Gasteizko Salbatzailearen hilerriko bere hilobian. Fundazioak oroitarazi du orain dela 40 urte abiatu zela "gera zikina", BVE Batallon Vasco Españolek Korta hil zuenean. 1979ko ekainaren 25ean Baionan auto bat hurbildu eta BVEeko mertzenario batzuek hil zuten tiroz.



Lore eskaintza egin dute Gasteizko Salbatzailearen hilerrian. HALA BEDI



Horno de Tuesta gozotegia. PHOT.OK

Horno de Tuesta gozotegia itxi dute, 59 behargin kalean utzita

Gaubeako La Dehesa industrialdean dagoen enpresa bakarrenetakoa ateak itxi ditu. Horno de Tuesta gozotegian lanean ari ziren 59 langile, gehienak emakumeak, kalean daude pasa den astetik. Salamancako Dulca da labearen jabea, eta dagoeneko aurkeztu du langile guztiak kaleratzeko erreglazio espedientea. UGTk "kolpe larritzat" jo du itxiera.

Ekainaren 28an Stonewall gogoan izateko deia egin dute

LGTBI mugimenduaren abiapuntuetako bat izan zen duela 50 urte izandako Stonewalleko altxamendua, eta hori zein beste hainbat borroka oroimenean izateko deia egin du Gasteizko E28 Koordinadorak. Egun horretan, 19:00etan manifestazioa deitu dute, Andre Mari Zuriaren plazan, eta hiru ordu geroago jaialdia egingo dute Gaztetxean.

Saharan izaten diren eskubide-urraketak NBERa eraman dituzte

Mendebaldeko Saharan Marokok egiten dituen eskubide-urraketei buruzko informazioa eskaini dute Arabako SEADen Lagunen Elkar-teak eta Equipe Mediak Genevako Nazio Batuen Giza Eskubideen egoitzan. Arrail bat harresian txostena aurkeztu dute bertan, eta baita Marokoren okupazioaren ondorioak salatzen dituen film labur bat ere.



Nazio Batuek Genevan duten egoitzan aurkeztu dute txostena. SAHARA ELKARTEA

Sustraien museoak, 25 urte

Etnografia modan zegoenean zabaldu zuten Pipaongo museoa, duela 25 urte. Baldintza latzenetan lan egin zuten arbasoen bizimodua erakusten duten hirurehundik gora pieza ditu, balore handikoak.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

25 urte bete berri ditu Pipaongo Museo Etnografikoak. Herrian sustraitua eta herritarren sustraiak erakusteko asmoarekin sortutako gunea da. Zuhaitz ikusgarria kimatu da Usatxi kultura elkarteak museoaren lehen hazia jarri zuenetik; hala, hiru milatik gora lagun igaro dira ordutik "herri pobre" baten eguneroko bizitzaren bitxiak ezagutzera.

Maite Alonso Pipaongo Administrazio Batzarreko kidea eta Marisol Bedia Usatxi kultura elkartekoa ziur daude 25 urte gehiago zabalik izango dela museoa.

Balio handiko piezak

371 pieza bildu dituzte herriko plazan dagoen eraikinean, gehienak balore etnografiko handikoak eta bisitariek asko estimatzen dituztenak. Izan ere, pieza bat baino gehiago erosi nahi izan diete bertatik igaro direnek. "Suediako bikote bat etorri zen behin, eta hemen dagoen *cunachoa* –hurritzaren adarrekin eta azalarekin egindako kapazua– erosi nahi izan zuten".

Pipaongo herritar xumeen bizimodu zaila ezagutu daiteke museoan. Behekaldeko pisuan nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin edo ikatza egiteko laborearekin loturiko hainbat elementu bitxi daude: ezkilak, ongintza-kutxa, artzak,

igitaia, txilarrez eginiko erratzak, bizarginaren bankua, erromatar balantza...

Bigarren solairuan, berriz, garaiko sukalde, egongela eta logelak irudikatu dituzte, eta baita herriko eskola ere. Hirugarrenean, Pipaongo tradizioak jasota daude: jantziak eta jokoak. Horien artean, adarrekin eginiko bola-joko bat dago, Gasteizko Zulaika familiak utzitakoa, edo kartutxoekin eginiko beste bola-joko bat.

Halaber, sekretu handi bat gorde du Pipaongo museoaren barrualdeak: historiaurrean bezala eginak daude eraikinen paretak "hurritzaren makilak, buztina eta lastoa" erabilita. Alonsok azaldu duenez, Guardiako La Hoyako herrixkan edo Dulantziko Henaioko kastroan bezala eraikita daude Pipaongo etxebizitzaren barrualdeak. "Jatorrizko trenkadak gorde

dira museoan, eta herriko hainbat etxetan ere", azaldu du Alonsok.

Errezeloak hasieran

Pilar Alonso pipaondarra izan zen pieza guztiak biltzeko erronka hasi zuena, eta elizako sakristian gordetzen hasi zen. Ondoren, garai horietan etnografiaren inguruan piztu zen interesagatik, Usatxi kultura elkarteak museoa sortu zuen, Zalduondoko elkartearen ereduari jarraituz, eta Pedro Ramos diputatuak eman zien babesari esker.

"Deialdi bat egin genuen herrian material gehiago biltzeko. Familek hasiera batean errezeloak zituzten, tresna horiek pobreziaren erakusle zirelako, eta hori erakutsita iseka egingo zirelakoan. Oso jende xumea zen". Haatik, pixkanaka uxatu zituzten beldurrak, eta gaurko egunez oso harro daude



Eskola bat dago museoan. PHOT.OK



Ikazkinen lana jaso dute. PHOT.OK

museoak egin duen ibilbidearekin.

Herria dinamizatzeko gakoa izan da museo etnografikoa, Bediak azpimarratu duenez. "Herri txikia da Pipaon, baina familia handi bat bezalakoa, onerako eta txarrerako. Museoak Pipaonen mugarri bat markatu du, hainbat tokitan museoagatik ezagutzen gaituzte. Egun ez genuke ulertuko Pipaon museoarik gabe". Museoa irekita izateaz gainera, hainbat dinamika sortu dira inguruan, eta abuztuaren azken asteburuan, esate baterako, museoa kalera ateratzen dute eta antzinako lan egiteko moduak erakusten dituzte.

"Pipaongo seme-alabak mundu osoan barreiatuta daude eta denak harro daude haien sustraiak ezagutzen dituztelako", esan du Alonsok. Museoari zor diote ezagutza hori. ■■■



Maite Alonso eta Marisol Bedia, ongintza-kutxaren ondoan. PHOT.OK



Hainbat etxetan jatorrizko trenkadak gorde dituzte; museoan ikusgai dago bat. PHOT.OK



Sukaldearen irudi bat. PHOT.OK



Nekazarien piezak, beheko pisuan. PHOT.OK



Bolo-jokoetako bat. PHOT.OK

Belaunaldi berrien uzta

Irene Carmona, Javier Ozkoidi, Susana Viñolo eta Marta Valverderen proiektu artistikoak aukeratu dituzte Montehermoso kulturunean aurkezteko, EHUrekin batera egindako deialdiari esker.

ERREDAKZIOA ARABA

Gazte sortzaileen lana ezagutzera emateko xedez, Gasteizko Udalak eta EHUko Arte Ederren Fakultateak duten akordioari esker, hainbat artistaren lana ezagutzeko aukera izango da Montehermoso kulturunean. Zazpigarren deialdian, lau proiektu artistiko aukeratu dituzte, lanean erabili beharko dituzten espazioak eta tresnak eskura jartzeko.

Aukeratutako proiektuak banaka aurkeztuko dituzte, artista bakoitzari 900 euro ordainduko zaio, eta banakako katalogoak egingo dituzte, Ibon Saenz de Olazagoitiak diseinaturik. Bigarren urtez, Cristina Arrazola gasteiztarra izango da komisarioa.

"Montehermoso kulturuneak profesionalizatzeko bidean dauden sortzaileen lanak ikusarazten laguntzen du, eta lanerako plataforma eskaintzen die haiei mundu profesionalera hurbiltzeko", azaldu dute programaren sustatzaileek. Aurkezteko epean 44 proiektu jaso zituzten, aurreko edizioan baino 49 gehiago. Horietatik lau aukeratu dituzte, 2019ko urritik 2010ko maiatzera arte aurkeztuko dituztenak.

Lau proiektu

Irene Carmonaren proiektua da aukeratutako bat, inguru hurbilenean aurkitzen dituen motibo plastikoak oinarri dituen lana: *Cuerpo inefable*. Argazkia da harrapatu nahi duen une plastikoa izozten laguntzen dion tresna, gero

pinturaren bidez interpretatu ahal izateko.

Javier Ozkoidiren *Walking the line* proiektua ere ezagutu ahal izango da Montehermoson. Kaleetan ibiltzen sortutako proiektua da, artistak berak azaldu moduan: "Inguruan dauden lerroei etengabe behatuz, haiekin elkarreragin eta haiek birpasatu edo sortzeraino".

Susana Viñolok, berriz, aurrerapen teknologikoen eta ezagutzaren paradigma historikoki aldakorren arteko erlazioa du gaitzat, astronomiaren alorreko teknologikoak ikergai. *The sky is inside* proiektuan, jatorri, garai eta munduko leku ezberdinetako irudiak eta informazioak alderatu eta gainjartzen ditu.

Marta Valverde artista, bere aldetik, errealtatea bitan banatzen saiatzen da *Blanco y fucsia* proiektuan, bere belaunaldiak azaltzen duen tristeziaren jatorria zein den asmatu nahian. "Arrazoa eta gorputza aurrez aurre, eguna eta gaua, loa eta esna egotea.

Ikus-entzunezko erretratu bikoitzen bidez bi mundu horiek –errealtatea eta ametsa– islatzen ditut, eta haien arteko zirrikituei buruz hausnartzen", azaldu du Valverdek.

Naturalismo dokumentala eta etorkizunari buruzko elkarrizketak amets-irudi estetikoekin nahasten dira. ■



Urritik aurrera aurkeztuko dituzte lanak; irudian, Javier Ozkoidiren obra. MONTEHERMOSO

Maria de Mendoza lehen lerrora

Erdi Aroko gizarte arauak hautsi zituen Maria de Mendoza andreari buruzko liburua kaleratu du Euskal Herriko Unibertsitateak; Martiodako dorrea izan zen Mendozaren eta haren ondorengoen bizilekuetako bat.

E. UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE GASTEIZ

"Andre handi bat gizon boteretsuen artean". Izenburu horrekin aurkeztu du Euskal Herriko Unibertsitateak Maria de Mendozari buruz argitaratu berri duen liburua. Horretan, XIV. eta XV. mendeen artean, itzal handiko andereak gidatu zuen leinuaren historia bildu dute hainbat ikerlarik.

Por merced e mandado de mi senhora. El señorío de María de Mendoza a fines de la Edad Media. Nuevos textos para el estudio de la sociedad alavesa (1332-1511) titulua du obrak, eta Letren Fakultateko ibilbide luzeko ikerketa talde batek idatzi du. Horien artean daude Agurtzane Paz Moro, Ismael Garcia Gomez, Jon Andoni Fernandez de Larrea Rojas, Jose Angel Lema Pueyo, Arsenio Dacosta Martinez, Mario Garcia Zuñiga, Jose Antonio Munita Loinaz eta Jose Ramon Diaz de Durana Ortiz de Urbina.

Emakume boteretsua

Ikertzaileek jaso dutenez, Maria de Mendoza 1342. urtean sortutako jurisdikzio jaurgotxiki baina zahar bateko lehen alaba eta oinordekoa izan zen, eta Martiodako dorreko eta Otoko herrixketako jaurgoko burua, 1404 eta 1472 urteen artean. Nerabezaro hasieran umezurtz gelditu zen, eta Arabako lurraldetako eta Gaztelako gorteko hainbat leinu



Martiodako dorrea. ALEA

GARAIKO GIZON BOTERETSUEN ARTEAN EGOTEA EGOKITU ZITZAION MENDOZARI

indartsuren ahaide zen – Hurtado de Mendoza, Mendoza, Aiala eta Sarmiento leinuak–.

Hortaz, garaiko gizon boteretsuen artean egotea egokitu zitzaion. Hala, "emakume basatiak" garaiko arau sozialak hautsi zituen – bere seme bakarra ezkontzatik kanpo izan zuen–, eta familiaren eta emakume, ama eta andre bezala zituen interesen alde borrokatu zen.

Ikerketa lanean, Mendozaren lurren eraketa, kudeaketa eta garapena ere aztertu ahal izan dituzte: "Izan ere, jaurgoko kontabilitatea ezin hobeto kontserbatu da". Halaber, Martiodako dorrea leinuaren oinetxea eta Maria de Mendozaren eta haren ondorengoen bizilekuetako bat zen, eta hura ere aztertzen da, ikuspuntu arkeologikotik. Jurisdikzio hartan jazotako protesta, erresistentzia, indarkeria eta negoziazio moduak ere liburuaren edukien artean jaso dituzte.

Harremanak ikertu

Lanaren helburua izan da Erdi Aroaren amaieran Otoko herrixketako auzotarrak beren artean, eta baita Maria de Mendozaren oinordekoekin zituzten harreman sozial, ekonomiko eta politiko tirabiratsuak aztertzea. Horregatik hain zuzen, Martioda, Otobarren eta Otogoi herrixketako biztanleak ere badira liburuko protagonistak: plebeioak eta kapareak. Horiek lurra lantzen zuten, basoko eta mendiko baliabideak erabiltzen zituzten, salgaiak garraiatzen zituzten Gasteizera eta Gasteiztik, eta errentak beren jauntxoei ordaintzen zizkieten.

Liburuaren bigarren zatia lan horretarako bildu eta kontsultatu diren dokumentuen edizio zaindu bat da. ■

Izpi indartsuak

SEXUALITATEA



EMAIZE

Azken asteetako berri garrantzitsuenetariko bat *La manada*-ren sententzia izan da. Hiru urte pasa dira bost gizonek sanferminetan neska bortxatu zutenetik, eta ordutik gazi-gozaok nahasiz joan dira.

Jendarte ia osoak bortxaketa izan zen zalantza izpirik ez zuen bitartean, baziren neska horren bizimodua epaitu zutenak, bortxatzaileen abokatuak besteak beste. Bideoa ikusita pornografia eszena kitzikagarria deskribatzen zuten batzuk eta aldi berean milaka pertsonak kaleak hartu eta emakumeari elkartasuna adierazten genion. Justizia matxista eta zaharkitu batek bortxaketa ordeztatu abusua zela esaten zuenean, gero eta feministagoa den jendarte honek hitza hartu eta ez genuela onartuko argi utzi zuen.

Gorenak eraso eta bortxaketa onartu ditu, eta erasotzaileen zigorra handitu du. Jendarteak lehen momentutik argi izan duena ondorioztatzeko, instantzia ezberdinetatik pasa eta denbora luzea behar izan ditu Justiziak. Tamalgarria bada ere, ez zaio dohain aterako, urte hauetan eztabaida piztu, langileen prestakuntza beharra eta legeen berritzea agerian geratu delako, eta honek berrikuntzak ikuspegi feministatik, sexuen arteko berdintasunetik... eraikitzea ekarri beharko du.



Iruñeko gertakaria salatzeko Gasteizen egindako elkarretaratzea. HALA BEDI

Azken epaiaren ondoren, sentsazio gazi-gozaok jarraitu du sareetan; askok justiziazko erabakia dela esan dute eta beste batzuk irain itzelak bota dizkiete, bereziki emakume batzuen kontrako komentario matxista eta misoginoak jaurtiz.

Gazia presente dago gure artean. Emakume izateagatik erasotua denean norbait, bortxaketa batean erasotuari erruren bat egotzen zaionean, bortxaketaren bideoa publiko egin ondoren erasotzaileak txalotu dituztenean, bortxatzeko asmoa aldeztu aurretik zutela jakitean,

elkartasuna adierazi dutenak irainduak izatean...

Gozoa askoz gehiago izan da, ordea. Emakume izateagatik ez duela inork erasorik jasan behar aldarrikatuz, emakume baten bizimoduak ez duela inoiz bortxaketa bat justifikatzen adieraziz, bortxatzaileak sozialki alboratuz, eta erasoak jasan dituzten emakume ororekin elkartasuna adieraziz...

Balantzak alde batera jo du argi, eta eraldaketa geldiezin da. Egoera latz honen atzean, milaka pertsonak onena eman dute eta itxaropenerako izpiak ikusten dira. ■

—emaize—

SEXOLOGIA ZENTROA
CENTRO SEXOLÓGICO

Bueno Monreal 1. behea · 01001 Vitoria-Gasteiz
945 265 896 · emaize@emaize.com · www.emaize.com

Suitza baino gehiago

GURE BAZTERRAK



Ibarra

Kuadrilla: Gorbeialdea.

Udalerria: Aramaio.

Biztanleak: 902 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: 7.300 hektarea inguruko azalerarekin, EAEko hogeai udalerrri handien artean dago Aramaio.

TESTUA: E.UGARTE L.Z.DE ARKAUTE

ARGAZKIA: PHOT.OK

Mendiz eta zelaiz inguratua egoteaz gainera, Arabako Aramaio udalerrian derrigorrez bisitatu beharreko eraikin eder ugari ere badaude, eta horietako batzuk Ibarra auzoan aurkituko ditugu, udalerriko hiriburuan. Kale nagusia herriko plazara iristen da, eta bertan aurkituko ditugu eraikin garrantzitsuenak. Batetik, Bizente Goikoetxea musikari ospetsuaren etxea ikus dezakegu, plazari izena ematen diona. Aramaioarra hil zela ehun urte bete ziren 2016. urtean, eta mendeurrenaren bueltan, etxe horretako horman dagoen plaka eraberritu zuen Udalak, baita Bañera parkean jarritako dagoen eskultura ere.

San Sebastian edo Sastiña ermita ere ikus daitezke honetan. Beronen inguruan Ibarra herria sortu zen eta bere inguruan egiten ziren azokak eta jaiak. Lauhunen urtez gorde dira barruan

udal pisuen eta neurrien patroiak eta udaleko idazki eta agiri garrantzitsuenak.

Udaletxea, berriz, 1742 eta 1746 urteen artean harlanduz eraikitako eraikuntza sendoa da.

Bost arku ditu fatxadetan, eta kanpai-horma dorrexka. Espetxe eta alondegi gisa erabili zuten garai batean, eta hain zuzen, 1872. urtean, Santa Kruz Apaiza

gerrillari karlistak bertatik ihes egin zuen hil behar zuten egunaren aurreko gauean.

Josemari Velez de Mendizabalek idatzi duenez, "aparteko maina eta abileziarekin zaintzako soldadua engainatu ostean udaletxeko balkoitik kalera jauzi egin zuen gaueko iluntasunean. Orkatilan zauritua egon arren, korrika desagertu zen inguru haietatik Errotabarri aldera. Errekar sartu zen eta osin batean ia-ia hogeita lau ordu eman zituen.

Tarte luze hartan bere burutik igarotako gogoeten berri emango du urte batzuk geroago Santa Cruzek berak zenbait idazkitan".

Inguruneak txango ugari egiteko eta baserri ederrak ikusteko aukera eskaintzen du. Hala, Ibarako Arraga auzoan baserri ikusgarriak daude, oso sakabanatuak. Gainera, Iturrieta sagardotegi-erregia dago bertan. Eguzkierripar auzoan, berriz, Maskariano baserria dago, haranean dagoen zaharrena -1454. urtea-.



EMAN ZUEN ARABAKO TXOKO KUTUNAREN BERRI. erredakzioa@alea.eus

Banpiro-jolasa

EGILEA: TOKI-EDER IKASTOLA 5.B



Materialak

- Futbol zelai txiki bat, porteria batekin.
- Bi baloi bigun.

Nola jolastu

Baloiarekin beste pertsona bat jo behar duzu, preso egiteko.

Jo ezkerre, kartzelara joan behar da eta bertan harrapatu duen pertsonaren izena esan behar du.

Izendatutakoa baloiaz jotzen badute, kartzelan dagoena libratu egiten da, eta bere ordeaz azken hau joango da kartzelara.

OHARRAK:

- Baloia daukanak hiru pauso bakarrik eman ditzake.
- Baloia daukanak ezin du baloia esku artean duen beste norbait baloiaz jo.
- Baloia airean hartzen baduzu, ez zaude harrapatuta.



ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak

Irabazleak:

Koikili Aterpetxean egonaldia: Nora Madariaga Oteo



Parralen bazkaria Otordua bi lagunentzat

ALEAk bi lagunentzat bazkari begetariano bat zozkatuko du Gasteizko Parral tabernan, astean zehar bazkaltzeko. Zozketan parte hartzeko, eman izena uztailaren 9a baino lehen. Uztailaren 12ko aldizkarian jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



GoPro motako kamera [ZOZKETA IREKIA]

GoPro motako kamera urperagarria. Kirol eta aisialdi jardueretarako diseinatuta (mendia, bizikleta, korrika...) eta wifi konexioduna. Zozketan parte hartzeko, eman izena uztailaren 9a baino lehen. Uztailaren 12ko aldizkarian jakinaraziko dugu irabazlearen izena.

OHARRA: Bazkide-zenbakirik ez baduzu, 000 idatzi.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:
945 71 60 09
On-line:
alea.eus/harpidetzak
E-mailez:
harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Ekainaren 28tik uztailaren 4ra

Euskararen agenda

MUSIKA

GUARDIA Azken Hatsa

Gudazaleak eta beste hainbat talderekin batera.

Ostirala 28, 22:00etan, txosnetan.

ARTZINIEGA Akerbeltz

Kuadrillen egunaren barruan.

Larunbata 29, 21:00etan, plazan.

KEXAA Kemen Gra abesbatza

Euskal abestien emanaldia.

Igandea 30, 12:00etan, San Juan elizan.

GASTEIZ Petti

Jazzaharrean jaialdiaren barruan.

Asteartea 2, 20:30ean, Parral tabernan.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Azken antzoki dantza'

Tranpola taldearekin. Lau saio eskainiko dituzte.

Igandea 30, 18:00etan, 18:30ean, 19:00etan eta 19:30ean, Hala Bedi ondoko lokalean.

GASTEIZ 'Chef nature'

Markeliñe taldearen eskutik.

Astelehena 1, 19:30ean, Salburuko gizarte etxean.

HAURRAK

GASTEIZ Txokoz txoko

Haurrentzako jolasak. Zaharraz Harro.
Ostirala 28, 10:30etik aurrera, Rafa plazan.



ALEA

MURGIA Zuia Euskaraz

Ekainaren 1ean hasi zuten ekitaldi sortari amaiera emango diote larunbat honetan. Hamaiketakoarekin hasiko dute eguna gaztetxean, eta ondoren udalerriko kultur taldeen eskutik ikuskizuna izango da, herri bazkaria eta erromeria Watson eta Nat taldearekin.

Larunbata 29, 11:00etatik aurrera.

GASTEIZ 'Egun on, sikiera'

Dibertikale kale antzerki jaialdiaren barruan eskainiko dute. Marrubi, Gerezi, Kontu eta Pantxi pailazoekin.

Asteartea 2, 19:30ean, Judimendiko Sefarad plazan.

BESTELAKOAK

GASTEIZ Liburu aurkezpena

'Maitasun keinu bat besterik ez' saiakera liburua aurkeztuko du Hasier Arraizek. Liburua aurkezteko, solasaldia izango da Miren Larrion, Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinekin.

Asteartea 2, 19:00etan, Artiumen.

GASTEIZ Kortxeak & Krispetak

Musika eta zinema uztartzen dituen zikloa. Aurten hiru ikus-entzunezko eta kontzertu bat eskainiko dute; besteak beste, Eskean Kristo eta Matangi Maya taldeak izango dira.

Uztailaren 2tik 5era bitartean, 19:30ean, Falerina lorategian.





**ITURRIETA
SAGARDOTEGIA**




B° Arraga, 2 / Aramaio
 ☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
 jj.iturrieta@Yahoo.com
 iturrietasagardotegia.blogspot.com.es



TXOTX EGIN!!




Servicio de autobús
TREBIÑU Sagardotegia
 ☎ 945 244 852-657 736 599 - ASKARTZA-TREBIÑU



Kuartango
 SAGARDOTEGIA

Servicio de autobús
 Zuhatsu-Kuartango 21
 t.699 747 730 · 945 362 683



Arabak,
arabako sagardoa!

KORTXEAK & KRISPETAK

MUSIKA + ZINEMA • 2019ko uztailaren 2tik 5era

UZTAILAK 2 • OIHANEDER • 19:30

LOU

DANTZAN JO TA KE, OINAK LEHERTU NAHIAN

Usua Garin, Andrea Lopetegi & Izotz Barrio, 2019 • EH • 59'



UZTAILAK 3 • FALERINA TABERNA • 22:00

MATANGI MAYA M.I.A.

Steve Loveridge, 2018 • AEB • 90'



UZTAILAK 4 • FALERINA TABERNA • 22:00

ORION

THE MAN WHO WOULD BE THE KING

Jeanie Finlay, 2015 • Britaina Handia • 86'



UZTAILAK 5 • FALERINA LORATEGIA • 21:30

ESKEAN KRISTO

EH • KONTZERTUA



OIHANEDER.EUS

FRAY JACARIAS MARTINEZ, 2-VITORIA-GASTEIZ

ANTOLATZAILEA

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
KORTZUTUEN BARRIO ANTOLATZAILEA

Antolatuak
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Ustea

LAGUNTZAILEA

FILMAZPIT

BARRESLEA

LABORAL

KOMUNIKABIDE LAGUNTZAILEAK

ALEA

Diario

berria

radio
vitoria